

GRADO EN INGENIERIA CIVIL

TRABAJO FIN DE GRADO

OLARANBE KIROL INSTALAZIOEN BERRIKUNTZA

DOCUMENTO V- SEGURTASUN ETA OSASUN AZTERKETA

Alumno/Alumna: Sodupe, Goikoetxea, Ana

Director/Directora: Etxebarria Ramírez, Paulo

Curso: 2018-2019

Fecha: Asteazkena, 2019ko uztailaren 17a

AURKIBIDEA

MEMORIA

1. XEDEA
2. ESS HONEN PRINTZIPIOAK
 - 2.1. PROIEKTUAREN INGURUAN
 - 2.2. PREBENTZIO IRIZPIDEEN INGURUAN
 - 2.3. DEFINIZIOAK
 - 2.4. HEZIKETA
 - 2.5. ERASANDAKO ZERBITZUAK
 - 2.6. BITARTEKOEI ERAGINDAKO ARRISKUEN PREBENTZIOA
 - 2.7. BEHIN-BEHINEKO INSTALAZIOAK
 - 2.8. BEHIN BEHINEKO HARGUNEAK
 - 2.9. OSASUN ETA HIGIENE INSTALAZIOAK
 - 2.10. ENPRESA KONTRATISTEN ETA SUBKONTRATISTEN DOKUMENTAZIOA
 - 2.11. ENPRESEN ARTEKO KOORDINAZIOA
 - 2.12. BESTELAKO OBRAKO INSTALAZIOAK
 - 2.13. INSTALAZIOEN PREBENTZIOA
 - 2.13.1. INSTALAZIO ELEKTRIKOA
 - 2.13.2. SUTEEN AURKAKO INSTALAZIOA
3. LAN FASEAK
 - 3.1. LAN FASEEN ARABERAKO ARRISKUEN IDENTIFIKAZIOA ETA AKZIO PREBENTIBOAK
4. PREBENTZIO ARAUDI OROKORRAK
5. PREBENTZIO BALIABIDEA

- 5.1. PREBENTZIO BALIABIDEEN BEHARRA
- 5.2. BALIABIDE PREBENTIBOEN EGINKIUNAK
6. ARRISKU BREBENTZIOEN FITXA TEKNIKOAK
7. ERREPARAZIO, KONTSERBAZIO ETA MANTENIMENDU LANAK

BALDINTZEN PLEGUA

1. APLIKATU DAITEKEEN ARAUDIA
2. BABES BALIABIDEEN BALDINTZA TEKNIKOAK
 - 2.1. BANAKAKO BABESAK
 - 2.2. BABES KOLEKTIBOAK
 - 2.2.1. ITXITURA HESIAK
 - 2.2.2. OHOLAK
 - 2.2.3. ALDAMIO TUBULARRAK
3. MAKINEN BALDINTZA TEKNIKOAK
4. INSTALAZIO EKELTRIKOAREN BALDINTZA TEKNIKOAK
5. OSASUN ZERBITZUEN BALDINTZA TEKNIKOAK
6. SEGURTASUNAREN ANTOLAKUNTZA
 - 6.1. SEGURTASUN ZAINZAILEA
 - 6.2. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA ETA ARRISKU OROTAKOA
 - 6.3. HEZIKETA
 - 6.4. AZTERKETA MEDIKOAK
7. INPLIKATUEN BETE BEHARRAK

PLANOAK

AURREKONTUA

MEMORIA

1. XEDEA

Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legearen 24. artikulua hauxe dio: <<Lan zentro berean bi enpresetako edo gehiagotako langileek jarduten badute, enpresa horiek lan arriskuak prebenitzeko araudia elkarlanean aplikatu beharko dute, lan arriskuetatik babesteari eta prebenitzeari dagokionez beharrezkoak diren koordinazio baliabideak jarri behar dituzte, eta beren langileei arrisku horien berri eman>>.

Agiri honetan egindako eraikuntza proiektuaren ondorioz, honen exekuzioan eman daitezkeen arrisku egoerak saihestu eta kalteak minimizatzeko helburuarekin egin da. Gainera, 1627/1997 –ko Real Dekretua jarraituz, non eraikuntza obren segurtasun eta osasun baldintza minimoak zehazten diren, agiri honen bitartez “OLARANBEKO INSTALAZIOEN BERRIKUNTZA”-ko obran eman beharko diren irizpide minimoak azalduko dira, aipatutako araudiaren 4 artikulua betez.

Proiektua “Ana Sodupe Goicoechea” ingeniariak idatzia izan da eta honen sustatzailea Vitoria-Gasteizko udaleko Kirol departamentua da, Vitoria-Gasteizko (Araba) Plaza de Amadeo García Salazar 3 helbideduna.

ESS hau obrako sail guztiei aplikatuko zaie, baita barruan lan egingu duten balizko kontrata eta azpi kontrata guztiei ere.

Kontratista izango den enpresak obrak hasi baino lehen Segurtasun eta Osasun plana idatzi beharko du, eta ondoren testu hau sortutako pertsonak, geroago Zuzendaritza Fakultatiboaren zati izango denak, plana ontzat eman beharko du. Adierazitako pertsona obraren segurtasun eta osasun koordinatzailea izango da, eta beraz, honek dakarren betebeharrak eta eginkizunak onartuko ditu.

2. ESS HONEN PRINTZIPIOAK

2.1. PROIEKTUAREN INGURUAN

ESS honek R.D. 1627/97 dekretuak, 5 artikuluan, 3. apartagoan adierazten duen moduan, *forma parte del proyecto de ejecución de obra, y será coherente con el contenido del mismo, y recoger las medidas preventivas adecuadas a los riesgos que conlleve la realización de la obra.*

Horregatik, proiektuan aipatutako eta beharrezkoa ez den informazioa alboratu egin da. Adibide moduan obraren kokapena, aurrekontua, lanen deskribapena.. eta abar aipatu daitezke.

2.2. PREBENTZIO IRIZPIDEEN INGURUAN

Irizpide hauek aurrerago proiektuaren exekuzioa burutuko duen kontratistak bete beharko ditu. Gainera, honek beste enpresa baten zerbitzuak kontratatzen dituenen eta langileak instalazioetan ari direnean, arriskuen gaineko informazioa eta jarraibideak jakinarazi beharko ditu, baita bakoitzari dagozkion babes eta prebentzio neurriei buruzkoak ere.

Aipatu behar da prebentzioaren oinarria enpresaren aktibitate guztietan eta maila guztietan ezarri beharko dela.

2.3. DEFINIZIOAK

Lan istripua: Edozein gertaera aurreikusi ez dena, nahi izan ez dena eta lanarekin jarraitzea oztopatzen duena.

Termino honen ebaluazioa errazteko, ondorengo taula azaltzen da, lan istripu batean esku hartu dezaketen kostu kontzeptu ezberdinen gidaliburua izateko. Honek ez du esan nahi lan-istripu guztietan aipatutako kostu guztiak gauzatuko direnik, baina egoera eta eraginaren ikuspuntu zehatzagoa izatea lagunduko du.

| CONCEPTO | UNIDAD | PARCIAL | TOTAL |
|---|--------|---------|-------|
| PERSONAL: | | | |
| . Horas perdidas debidas a la baja. | | | |
| . " " por consulta y asistencia médica. | | | |
| . " " " los operarios. | | | |
| . " " " " mandos. | | | |
| . " " " coordinador de Prevención. | | | |
| ASISTENCIA: | | | |
| . Asistencia directa. | | | |
| . Horas perdidas por el servicio médico. | | | |
| PRODUCCION: | | | |
| . Interrupción del trabajo o deficiente funcionamiento. | | | |
| . Daños en máquinas, instalaciones, etc. | | | |
| . Pérdidas de producto. | | | |
| . " " materias primas. | | | |
| . " " clientes. | | | |
| SEGUROS: | | | |
| . Valor de pólizas de los seguros. | | | |
| OTROS: | | | |
| . Gratificaciones y varios. | | | |
| . Administración. | | | |
| . Traslados. | | | |
| . Corrección. | | | |
| . Sanciones y defensa de posibles responsabilidades. | | | |
| IDENTIFICACION: | | | |

V- Taula 1: Lan istripuen zerrenda

Lan gertakaria: lanean ematen den edozein gertaera, bere ondorioz arrisku probablea eragin dezakeena, langileen osasunean kalteak sortuz.

Lan gaixotasuna: Zerrenda ofizialean agertzen diren guztiak eta huez gain, lanaren ondorioz sortutako izan dela frogatu daitekeen edozein gaixotasun.

NOTIFIKAZIO TXOSTENA

Azaldutako gertakariak egotearen kasuan, ondorengo txostenean adierazitako irizpide berdineko dokumentua bete beharko da. Gainera, obraren zuzendariak arriskuaren zuzenketa bermatu beharko du, edo honen minimizazioa eragingo duten baliabideak erabili eta sustatu beharko ditu. Egindako txostena nahiz hartu beharreko irizpideak ESS honen idazkariari jakinaraziko dizkio.

| | |
|--|--------------------------------------|
| DATOS DEL: Accidentado <input type="checkbox"/> Incidentado <input type="checkbox"/> | |
| NOMBRE Y APELLIDOS: | |
| OBRA: | OFICIO: |
| PUESTO: | |
| DATOS DEL: Accidente <input type="checkbox"/> Incidente <input type="checkbox"/> Mejora del sistema <input type="checkbox"/> | |
| FECHA: | HORA DEL DIA: |
| LUGAR DEL SUCESO: | |
| TESTIGOS: | |
| EXPLICACION DETALLADA DEL SUCESO: | |
| ¿HA TOMADO ALGUNA SOLUCION PROVISIONAL?: Sí <input type="checkbox"/> No <input type="checkbox"/> | |
| ¿PUEDE PASAR A DEFINITIVA?: Sí <input type="checkbox"/> No <input type="checkbox"/> | |
| CLASIFICACION: Daño <input type="checkbox"/> Lesión <input type="checkbox"/> Blanco <input type="checkbox"/> | |
| (a rellenar por el Servicio Médico): | NOMBRE Y APELLIDOS DEL QUE NOTIFICA: |
| DIAGNOSTICO: | FECHA DE LA NOTIFICACION: |
| CAUSA BAJA: Sí <input type="checkbox"/> No <input type="checkbox"/> Enviado a: | HORA DE LA NOTIFICACION: |
| OBSERVACIONES: | FIRMA: |
| FIRMA: | FIRMA: |
| *** NOTIFICAR EL MISMO DIA DEL SUCESO A JEFE DE OBRA *** | |

V- Taula 2: Notifikazio txostena

PREBENTZIO EBALUAKETAREN TXOSTENA

Dokumentu hau obraren arduradunak astero bete beharko du, beste bi edo hiru subordinatuaren presentzian. Hilabetearen amaieran egindako txostenak obraren Zuzendariari emango zaizkio, eta honek Zuzendari Fakultatiboari entregatuko dizkio.

2.4. HEZIKETA

Obraren hasiera baino lehen, eta arriskuen prebentzioaren oinarriarekin jarraituz, Zuzendaritza Fakultatiboak aurretik aipatutako irizpideei inguruko bilera burutuko du. Honetan bereziki babes kolektibo eta babes indibidualen garrantzia eta hauen antolaketa azalduko da, egin den arriskuen analisi eta ebaluazioarekin batera.

Bilera honen iraupena 4 ordu ingurukoa izango da eta gutxienez Obra Zuzendaria eta Obraren Arduradunaren presentzia beharrezkoa izango da. Bi pertsona hauen ardura izango da bileran azaldutako gai eta informazioa obran parte hartuko duten langileei jakinaraztea.

2.5. ERASANDAKO ZERBITZUAK

Azterketa honetan ez dira inolako zerbitzuekin interferentziarik jaso, baina hala ere, jarraitu beharreko pausuak hauek dira:

- Kontratista erasandako zerbitzuaren titularrarekin kontaktuan jarriko da, eta honi ibilbidearen ezaugarriak adieraziko dio.
Prozesuan zehar, ebaluatu beharreko eremua seinaleztatua izango da, hau babestuz.
- Erasandako zerbitzua lekualdatu behar bada, hau aldatu baino lehen konponbide alternatiboa burutu eta onetsi beharko da.
- Erasandako titularrarekin kontaktua mantendu, antolakuntza egokia bermatu eta arazoak ekiditeko.

2.6. BITARTEKOEI ERAGINDAKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Gaur egun eta obraren exekuzioan zehar pertsonen igaroa egongo denez, kontu bereziko edukiko da obraren inguraketa egokian eta makina nahiz ibilgailuen sartze eta irteeran.

Obraren hasieraren aurretik informazio nahiz baliabide prebentiboak kokatu beharko dira, instalazioen erabiltzaileak nahiz langileak egon daitezkeen arriskuez kontzientziatzeko. Proiektu honen kasuan hurrengo elementuak kokatuko dira:

- Hesi perimetrala: exekuzio eremu osoaren perimetra erabiltzaileengandik bananduko da, gaur egun babes barik dauden zonak hesi metaliko baten bidez itxiz. Honen altuera 2,50 metrokoa izango da eta lurrean landatuta egongo dira.
- Gaur egun dagoen ate bikoitza aprobetxatuz, bertan ibilgailuentzako sarrera kokatuko da, gutxienez 5 metroko pasabidea utziz. Kamioi nahiz makinaren maniobratzea errazteko, aparkalekuaren lehengo ilara n aparkatzea debekatu egingo da, pasabidearen zabalera handituz.
- Pertsonentzako sarbidea honen ondoan ere izango da eremuaren exijentzien ondorioz, baina ahalik eta distantzia gehien izango da bi sarreren artean. Ate metalikoa kokatuko da 1 metroko zabalarekin.
- Informazioa seinaleztapena kartel basikoekin egingo da, fitxa teknikoak jarraituz. Honetan hauek barneratzen dira:
 - a) Irisgarritasuna: obrarako sarbidea bestelako pertsoneri debekatuko zaie
 - b) Trafikoa: sartze eta irteera momentuetan eman daitezkeen arriskuak ekiditeko.
 - c) Segurtasuna: hauek protekzio indibidualako ekipoen beharra azalduko dute.

2.7. BEHIN-BEHINEKO INSTALAZIOAK

Kontratastak Zuzendaritza fakultatiboari behin-behineko instalazioen ezaugarri nahiz antolaketa proposamena egingo dio, ondorengo elementuekin batera:

- Bulego moduan erabiliko den kaseta
- Langileentzako aldagela nahiz komunak
- Tresneria gordetzeko biltegia

ESS honetan ezarpen proposamen bat egiten da, planoetan adierazitakoa, non geroago kontratastak aurrera eraman edo aldaketak proposatu ditzakeen.

2.8. BEHIN-BEHINEKO HARGUNEAK

Kontratistak bere kabuz burutuko ditu:

- Edateko uraren horniketa
- Energia elektrikoaren horniketa
- Euri uren eta ur zikinen isurketaren lotura egin sare publikora.
- Elektrizitate koadroa homologatua izango da eta kanpoan egoteko prestatua
- Behin behineko instalazioa instalatzaile homologatu batek egina izan beharko da, eta honek Zuzendari Fakultatiboari exekututuko horniketa legedia jarraituz egin dela ziurtatu beharko du agiri baten bidez.

2.9. OSASUN ETA HIGIENE INSTALAZIOAK

Obraren exekuzioan zehar mantenduko diren guneak, fabrika obren bitartez egin daitezke baina hauek kaseta modulatu prefabrikatuak izatea gomendatzen da. Hurrengo elementuak izan beharko dituzte:

- KOMUNAK, gutxienez
 - a) 20 pertsona talde bakoitzeko komun-ontzi 1
 - b) 10 langile talde bakoitzeko dutxa 1
 - c) 1^o pertsona talde bakoitzeko konketa 1
 - d) Konketa bakoitzeko ispilu bat
 - e) Ur beroko horniketa dutxetan
- ALDAGELAK, gutxienez 2 m²-ko azalerarekin eta 2,30 m-ko altuerarekin obrako langile bakoitzeko.
- JANTOKIA, langileak honen beharra izateko kasuan, helburu horretarako erabiliko den gela kokatuko da, iluminazio eta aireztapen egokiarekin, eta gutxienez 2,60 m-ko altuera izango du.
- BOTIKA-KUTXA, obran derrigorrezkoa izango da botika-kutxa bat izatea eta hau armairu egoki batean izatea. Larrialdietan erabili beharreko telefonoa nahiz kolpatua

eraman beharreko tokiaren helbidea ikusgai izan beharko da. Gutxienez honakoa izango da:

- a) Ur-oxigenatua
- b) 96^o-ko alkohola
- c) Betadine
- d) Gasak
- e) Kotoi hidrogufoa
- f) Esparadrapoa
- g) Torniketeak egiteko goma
- h) Izotz poltsa (edo helburu berdinerako diseinatutako elementuren bat)
- i) Eskularru esterilizatuak
- j) Termometroa
- k) Antiespasmotikoak (Buscapina)
- l) Analgesikoak
- m) Guraizeak
- n) Tiritak
- o) Erredurentzako pomada

2.10. ENPRESA KONTRATISTEN ETA SUBKONTRATISTEN DOKUMENTAZIOA

Obrako bulegoan, langileen sarrera baino lehen, hurrengo dokumentazioa gorde beharko da, bere maila nahiz enpresa dena delakoa izanda ere.

- Enpresaren prebentzioaren antolakuntzaren dokumentua
- Arriskuen seguru eta erantzukizun zibileko seguruak
- Intereskoa den lan inguruko dokumentazioa eta TC-1
- Obraren Segurtasun eta Osasunaren Planaren onarpena sinatua
- Obraren langileen zerrenda eta datuak: NAN-a, maila, gaikuntza, TC-2...
- Segurtasun eta Ogasuneko arduradunaren izendapenaren Aktaren dokumentua
- Langileen heziketaren inguruko dokumentazioa

- Azterketa medikoen agiria
- Enpresak EPI -en entrega egin duen ziurtagiria
- Enpresa azpi kontratisten informazioa eta hauen egotearen dokumentua
- Makinen CE ziurtagirien kopia
- Makinen erabileraren baimena

2.11. ENPRESEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Obraren exekuzioan zehar Segurtasun eta Osasuneko arduradunak, Enpresa Kontratista eta Enpresa Azpi Kontratisten artean bilera periodikoak egingo dira, hilabete bakoitzeko edo bi hilabeteko, enpresa ezberdinen lanak koordinatu eta arriskuen prebentzioaren inguruko atalak aztertu eta aurreikusteko.

Bilera bakoitzaren ostean akta bate gin beharko da, eta egondako alderdi guztiek sinatu beharko dute.

2.12. BESTELAKO OBRAKO INSTALAZIOAK

Kontratatistak beste aukeraren bat erabili ezean, ondorengoa aurreikusi da:

- Enfoskatua eta blokeko fatxadaren exekuziorako erabiliko den morteroa bi erakoa izango da: hauetako bat obran bertan egindakoa eta bestea industrializatua, siloetan gordeta. Azkenengo aukeran, morteroa hodi pneumatiko baten bitartez erabilera punturaino eramango da.
- Ez da altzairu tailerrik egongo, hau fabrikatik moldatua etorriko baita, obran soilik honen kokapena edo lotura egitea ahalbidetuz.
- Hormigoiaren isurketa zentral batetik ekarriko da eta hormigonaketa kamioi baten bitartez eta bonba baten laguntzarekin bere kokalekura zuzenduko da.

2.13. INSTALAZIOEN PREBENTZIOA

2.13.1. INSTALAZIO ELEKTRIKOA

Behin-behineko obraren instalazio elektrikoa hurrengo elementuez osatuko da:

- a) Sarerako konexioa eta koadro orokorraren arteko instalazioa.

- b) Babes koadro orokorretik obra osora heltzen den instalazioa, beharrezko argiztapen eta indarra emanaz.

Lehenengo zatiaren beharra ez da aurreikusi, gaur egungo instalazioek duten sarerako konexioa erabiliko baita. Hala ere, honen beharra izatekotan, elektrizitate horniketaren enpresaren arabera egingo da, hau da, IBERDROLA.

Atal honek eraginda izan daitezkeen arriskuak hurrengoak dira:

3. Ukitze zuzena
4. Zeharkako ukitzea
5. sutea

NEURRI PREBENTIBO ZEHATZAK

Lehenago adierazitako arriskuak ikusita, eta obran emango diren baldintzak jakinda, exekuzio lanak inguru hezean egingo direla kontuan hartu beharko da.

a) Koadro elektrikoak

- Isolatzaile bikoitza izango dute, II klasea.
- Soilik tresna bereziekin irekiko dira eta espezialista baten eskutik.
- Guztiz debekatuta dago desarra diferentzialeko mekanismoa eraldatzea eta hau egunero konprobatuko da.

b) Entxufeak

- Giro hezerako prestatuak izango dira
- Ez dira erabiliko hartzailearen intentsitate nominala handiagoa denean.

c) Banaketa linea

- Erabilitako eroaleak zorro-kable flexible erakoak izango dira eta egoera hezeetan erabiltzeko egokituak ere.
- Obrarako instalazio elektrikoa airekoa izango da, korrante-harguneetara iristeko behar hodiak erabiliz.
- Argiztapen hartzaileak

- Leku irisgarrietan kokatutako argi-puntu guztiak I klasekotzat hartuko dira, eta sentikortasun altuko etengailu diferentzial baten bidez babestuak egon beharko dira.
- Anpoilak babes pantailen bitartez babestuak egongo dira.
- Gune oso hezeetan egotekotan, segurtasun lanpara-euskarriak erabiliko dira.

d) Tresna eramangarriak

- Eremu hezeetan erabiltzen diren kasu guztietan hauek II klasekoak izango dira, edo segurtasun tentsioen bidez hornituko dira. Gainera, sentikortasun altuko etengailu diferentzial baten bidez babestuak egongo dira (30mA).

e) Orokortasunak

- Ez da instalazio elektrikoetan lanik egingo, lehenago horniketa iturria deskonektatu ezean.
- Eroale guztiak era egokian babestu beharko dira.
- Horniketa beharrezkoa denean eta instalazioan lanak egin behar direnean, soilik langile espezializatuek egingo dituzte eta tresna homologatuekin.
- Obran egindako instalazio elektrikek indarrean dagoen Behe Tentsioko Araudia bete beharko dute.

2.13.2 SUTEEN AURKAKO INSTALAZIOA

ARRISKUEN ANALISIA

Eraikuntza fasean dagoen eraikuntza baten sutea eragiten dituzten faktoreek beste egoeretan ematen diren suteen oso antzekoak dira.

- Sute-sorgune bat dago erregaia den substantzia baten ondoan.

Horregatik, suteen sorrera ekiditeko, hurrengo neurriak hartuko dira

NEURRI PREBENTIBOAK

- Behin-behineko instalazio elektrikoaren berrikuspen eta ziurtapena.
- Erregaiak diren substantzien biltegitratze egokia ziurtatu, bereziki hauen ontziratzea.
- Erregaien kokalekua antolatu, sute-sorgune posibleetatik aldentuz.
- Erretzearen debekua jakinarazi eta seinalizatatu.

- Koadro elektriko orokorrek su-itxalgailu bat izango dute.

3. LAN FASEAK

Obran zehar hurrengo exekuzio faseak ezberdintzen dira, segurtasun eta osasunaren ikuspuntutik.

- Hondeaketa
- Zimentazioa
- Saneamendua
- Zelaiaren zoruen eratzea
- Egitura metalikoa
- Estalkiak eta itxiturak
- Bereizketak
- Metal-arotzeria
- Beirateak
- Pintura eta akaberak
- Urbanizazioa

3.1. LAN FASEEN ARABERAKO ARRISKUEN IDENTIFIKAZIOA ETA AKZIO PREBENTIBOAK

Obraren exekuzioan zehar hainbat arrisku mota eman daitezke eta kasu askotan bat baino gehiago aldi berean. Arrisku hauen identifikazioa errazteko, lan fase ezberdinetan eman daitezkeenak, eta hauek ekiditeko akzio prebentiboak azalduko dira.

- Hondeaketa

| Arriskuak | Akzio prebentiboak |
|---------------------------|---|
| ibilgailuen arteko talkak | Kamioien irteera eta sarrerak seinalista baten laguntzarekin. |
| harrapatzeak | Kamioi eta pertsonen ibilbideak bereiztu |
| makinen kolpatzeak | Makinak funtzionatzen dauden bitartean segurtasun distantziak mantendu. |

V- Taula 3: Hondeaketa fasearen arriskuak

- Zimentazioa

| Arriskuak | Akzio prebentiboak |
|------------------------------|---|
| ibilgailuen arteko talkak | Kamioien irteera eta sarrerak seinalista baten laguntzarekin. |
| harrapatzeak | Kamioi eta pertsonen ibilbideak bereiztu |
| makinen kolpatzeak | Makinak funtzionatzen dauden bitartean segurtasun distantziak mantendu. |
| kolpeak mailuekin | Eskularru nahiz betaurrekoen erabilera nahitaezkoa. Elementu babesgarriak erabili |
| Mozketak zerra zirkularrekin | Zerra zirkularren erabilera egokia, beti bi eskuak makinan izanik |

V- Taula 4: Zimentazioa fasearen arriskuak

- Saneamendua

| Arriskuak | Akzio prebentiboak |
|------------------------------|---|
| kolpeak mailuekin | Eskularru nahiz betaurrekoen erabilera nahitaezkoa. Elementu babesgarriak erabili |
| Mozketak zerra zirkularrekin | Zerra zirkularren erabilera egokia, beti bi eskuak makinan izanik |

V- Taula 5: Saneamendua fasearen arriskuak

- Zelaiaren zoruen eratzea

| Arriskuak | Akzio prebentiboak |
|---------------------------|---|
| ibilgailuen arteko talkak | Kamioien irteera eta sarrerak seinalista baten laguntzarekin. |
| harrapatzeak | Kamioi eta pertsonen ibilbideak bereiztu |
| makinen kolpatzeak | Makinak funtzionatzen dauden bitartean segurtasun distantziak mantendu. |

V- Taula 6: Zelaiaren zoruen eratzea fasearen arriskuak

- Egitura metalikoa

| Arriskuak | Akzio prebentiboak |
|---------------------------------|--|
| Altuera erortzeak | Babes kolektiboen erabilera, aldarnioak, barandak, sareak... |
| Objetu pisutsuekin kolpatzeak | Objetu pisutsuen garraioan pertsona batek zona aldean beste edonor ez egotea ziurtatu beharko du uneoro. |
| makinen kolpatzeak | Makinak funtzionatzen dauden bitartean segurtasun distantziak mantendu. |
| Suteak soldaduren exekuzioan | Sopleteak erabili behar direnean inguruan objektu edo material sukoiarik ez egotea ziurtatu beharko da |
| Erretzeak soldaduren exekuzioan | Sopleteak erbiltzeko beharrezko banakako babesak erabiltzea nahitaezkoa izango da: betaurrekoak, eskularruak, suaren aurkako arropa... |
| Objetuen erortzea | Objetuak ertzetatik ahalik eta hurrunen kokatu beharko dira, eta erorketa arriskua izanez gero, hauek lotu beharko dira, eta erorketa zonaldea adierazi. |

V- Taula 7: Egitura metalikoa fasearen arriskuak

- Estalkiak eta itxiturak

| Arriskuak | Akzio prebentiboak |
|-------------------------------|--|
| Altuera erortzeak | Babes kolektiboen erabilera, aldarnioak, barandak, sareak... |
| Objetu pisutsuekin kolpatzeak | Objetu pisutsuen garraioan pertsona batek zona aldean beste edonor ez egotea ziurtatu beharko du uneoro. |
| makinen kolpatzeak | Makinak funtzionatzen dauden bitartean segurtasun distantziak mantendu. |
| Objetuen erortzea | Objetuak ertzetatik ahalik eta hurrunen kokatu beharko dira, eta erorketa arriskua izanez gero, hauek lotu beharko dira, eta erorketa zonaldea adierazi. |

V- Taula 8: Estalkiak eta itxiturak fasearen arriskuak

- Bereizketak

| Arriskuak | Akzio prebentiboak |
|-----------------------------|--|
| Altuera erortzeak | Babes kolektiboen erabilera, aldarnioak, barandak, sareak... |
| Objetuen erortzea | Objetuak ertzetatik ahalik eta hurrunen kokatu beharko dira, eta erorketa arriskua izanez gero, hauek lotu beharko dira, eta erorketa zonaldea adierazi. |
| Erorketak altuera berdinean | Langileen mugimendurako bideak garbi mantenduko dira, eta exekuzioan zehar sortutako hondakinak behar bezala pilatu eta gorde beharko dira. |

V- Taula 9: Bereizketak fasearen arriskuak

- Metal eta zur-arotzeria

| Arriskuak | Akzio prebentiboak |
|-----------------------------|--|
| Altuera erortzeak | Babes kolektiboen erabilera, aldamiok, barandak, sareak... |
| Objetuen erortzea | Objetuak ertzetatik ahalik eta hurrunen kokatu beharko dira, eta erorketa arriskua izanez gero, hauek lotu beharko dira, eta erorketa zonaldea adierazi. |
| Erorketak altuera berdinean | Langileen mugimendurako bideak garbi mantenduko dira, eta exekuzioan zehar sortutako hondakinak behar bezala pilatu eta gorde beharko dira. |
| Kolpeak mailuekin | Eskularru nahiz betaurrekoen erabilera nahitaezkoa. Elementu babesgarriak erabili |

V- Taula 10: Metal eta zur arotzeria fasearen arriskuak

- Pintura eta akaberak

| Arriskuak | Akzio prebentiboak |
|--|--|
| Objetuen erortzea | Objetuak ertzetatik ahalik eta hurrunen kokatu beharko dira, eta erorketa arriskua izanez gero, hauek lotu beharko dira, eta erorketa zonaldea adierazi. |
| Erorketak altuera berdinean | Langileen mugimendurako bideak garbi mantenduko dira, eta exekuzioan zehar sortutako hondakinak behar bezala pilatu eta gorde beharko dira. |
| Kolpeak mailu edo bestelako erremintekin | Eskularru nahiz betaurrekoen erabilera nahitaezkoa. Elementu babesgarriak erabili |

V- Taula 11: Pinturak eta akaberak fasearen arriskuak

- Urbanizazioa

| Arriskuak | Akzio prebentiboak |
|---------------------------|---|
| ibilgailuen arteko talkak | Kamioien irteera eta sarrerak seinalista baten laguntzarekin. |
| makinen kolpatzeak | Makinak funtzionatzen dauden bitartean segurtasun distantziak mantendu. |

V- Taula 12: Urbanizazioa fasearen arriskuak

4. PREBENTZIO ARAUDI OROKORRAK

Eraikuntza jarduera guztietan, hauek partekatzen dituzten ezaugarriak direla eta, badira komunak diren eta hartu beharreko prebentzio neurriak.

- Debekatuta dago obra-hondakinak libreki plantetatik botatzea
- Materialen deskarga garabi, kamioi-garabi edo beste medioren bitartez egiten denean, helburu horretarako egindako plataformen bidez egingo da.

- Plantara iristeko bide nagusia moztuta dagoenean, ibilbide alternatiboa seinaleztatuko da.
- Obraren garbiketa zainduko da, egunero hondakinak pilatu edo kentzeko.
- Kargen lekualdatzea eskuz egiten direnean, bizkarraren posizio bertikala mantentzeko arreta jarriko zaio, eta bi pertsona edo gehiagoren artean beharrezkoa denean.
- Iluminazio naturala nahikoa ez denean, argiztapen artifiziala kokatuko da. (gutxienez 200 lux 1 metroko altueran)
- E.P.I-ak nahitaezko erabilerakoa izango dira

5. PREBENTZIO BALIABIDEA

Laneko arriskuak prebenitzeko Legearen 32 bis artikulua - 604/2006 Errege Drekretuaren 22 bis artikulua garatzen duena- ezartzen duenaren arabera, <<beharrezkoa izango da lantokiak prebentzio baliabideak izatea, baliabide horiek antolatze modalitatea edozein dela ere, zenbait operazioaldi berean gertatzeagatik arriskuak areagotu edo aldatu daitezkeen kasuetan, jarduera edo prozesu arriskutsuak edo arrisku berezia dutenak gauzatzen direnean edo Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskapenak horrela eskatzen duenean>>.

Kapitulu honen helburua enpresa kontratistaren barruan prebentzio baliabideak egotea beharrezkoa den kasuak zehazteko irizpideak finkatzea da.

5.1. PREBENTZIO BALIABIDEAREN BEHARRA

Prebentzio baliabideen egotea, hauen antolaketa era edozein izanda, hurrengo kasuetan beharrezkoa izango da:

- Elkarren segidan edo aldi berean gertatzen diren operazioek areagotu edo aldatu ditzaketen arriskuak daudenean, eta lan metodoak modu egokian aplikatzen ari direla kontrolatu beharra eragiten dutenean.
- Lan-mota zehatzak egiten direnean
 - a) Altueratik eroaldiak eman daitezkeen kasuetan
 - b) Hondoratze edo hobiratze arriskua dagoenean
 - c) Gune konfinatuetan ematen diren lanak

d) Urperatze arriskua dagoenean

- Lan eta Segurtasun eta Osasun ikuskapenak eskatzen duenean.

5.2. ERREKURTSO PREBENTIBOAREN IZENDAPENA

Kontratista bakoitzak baliabide prebentibo baten izendapena egin beharko du, honek obran presentzia izanik. Gainera, enpresaren langileei aipatutako lana betetzen duten pertsonen jakinarazpena egin beharko zaie.

5.3. BALIABIDE PREBENTIBOEN EGINKIZUNAK

- Segurtasun eta Osasun planean adierazten diren neurriak betetzen direla ziurtatu, eta hauen eraginkortasuna ebaluatu.
- Deskribatutako araudia betetzen ez den kasuetan, langileak zuzendu edo araudia betetzeko beharrezko ekintzak agindu beharko ditu.
- Nahiz eta irizpideak jarraitu arrisku prebentzio baten falta susmatzen denean hau ere konpondu eta Segurtasun eta Osasun arduraduna nahiz enpresariari jakinaraziko dio.

6. ARRISKU PREBENTZIOEN FITXA TEKNIKOAK

Hurrengo atalean, obrara lotutako zenbait fitxa tekniko erantsi dira. Honen helburua, sistema eskematikoa erabiliz, exekuzioan eman daitezkeen arriskuen adierazpena egin nahi da, hauen antzematea erraztu eta gainera beraien eraginak txikitu edo saihesteko alternatibak aipatuko dira. Modu honetan, ez da soilik pertsonetan eman daitezkeen kalteak txikituko, baizik eta kalte material edo makinetan eman daitezkeenak ere.

Aipatu beharra dago honi buruz, kalteak sortu ez dituzten arriskuak identifikatzea ezinbestekoa dela. Izan ere, gerta daitezkeen istripuak aurreikusiz, hauen analisi sakona egin eta gertatzea ekidin dezaketen neurriak hartu daitezke, benetako kalteak izan baino lehen.

| 01 METALEZKO ALDAMIO TUBULARRA | | | | |
|--------------------------------|--|--|--|-------------------------|
| ERAIKITZE FASEA | ARRISKU ETA KAUSAK | PREBENTZIO ARAUAK | BABES KOLEKTIBOA | BABES INDIVIDUALA |
| Hormigoizko egitura | MAILA | Euskarri egokia | Pertsonen zirkulazioan markesina | Kaskoa |
| Egitura Metalikoa | EZBERDINTASUN ERORKETA | Nivelazioa | Lonak | Gerrikoa eta arnesa |
| Estalkia | a) <i>Hondoratzea</i> | Egonkortasunaren ziurtapena | erabiltzekotan zulatuak, haizearen eragina minimizatzeko | Zirga |
